

VI. SALTO SYSTEMS OSASUNAREN ALDEKO MILIAK 2022

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak eta **Irungo Txirrindulari Elkarteak**, Irungo Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Salto Systems-en babesarekin, **VI. Salto Systems Osasunaren Aldeko Miliak** antolatzen ditu datorren ekainaren 19ean, igande goizean. Ekitaldia herritar guztiei zuzenduta dago eta jarduera fisiko osasungarria, inklusiboa eta solidarioa sustatzen saiatzen da. Gainera, **Bidasoako ESlaren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren** eta **Kirol Egokituaren Federazioaren** laguntza dugu.

Ekitaldiz betetako igande goizeko jardunaldia izango da irungo erdigunean non herritar guztiek parte hartu ahal izango dute, eta bertan **Juanma Garate Txiki Duatloia**ren **1. edizioa** ospatuko da.

COVID-19ren AURKAKO NEURRIAK, aurreikusita ez baldin badaude ere, beharrezkoak izanez gero, maskara erabiltzeari, higieneari eta distantziari buruzko neurriak agintaritza eskudunek ezarritakoak eta ekitaldiaren egunean indarrean legokeenak izango litzateke.

2. ARTIKULUA: EKITALDIAREN EGITARAU OSOA

- 09h30 Tipi-tappa ibilaldi osasungarriak
- 10h15 Erreleboetako 4x1 Milia Salto Systems Lasterketa
(Aldi berean Erreleboetako 4x1 Milia Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeentzako Lasterketa jokatu da).
- 11h00 Handbike eta Gorpildun Aulkietarako Salto Systems Milia Bateko Lasterketa
- 11h15 Adimen Urriko Kirolarientzako Milia Erdiko Lasterketa
- 11h30 1.go Juanma Garate Txiki Duatloia
- 13h00 Gipuzkoa Minbiziaren Aurka Familientzako Milia Solidarioa

3. ARTIKULUA: PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Ekitaldian parte hartzea nahi duen edozein pertsonarentzako zabalik dago, kategoria, genero, jatorria edo eta diskriminazioa eragin dezakeen beste edozein ezaugarriatik bereizketarik egin gabe. Ekitaldi honen helburua, hain zuzen ere, jarduera fisiko osasungarria, inklusiboa, solidarioa, herrikoia eta edozein adinetarako sustatzea da.

Errelebo-lasterketak, milia egokitua eta duatloia lehiakorak izango dira. Gainerako jarduerak parte-hartzea izango dute helburu.

Errelebo-lasterketa 12 urtetik gorako kirolariei zuzenduta dago. Aldi berean antolatutako bigarren hezkuntzako ikastetxeentzako errelebo-lasterketa DBHko ikasleek osatutako taldeentzat izango da.

Milia egokitan handbikean zein gorpil-aulkian parte hartu ahal izango dute kirolariak.

Duatloian benjaminak, 2012 eta 2013 jaiotakoak, alebinak, 2010 eta 2011 jaiotakoak, eta infantilak, 2008 eta 2009 jaiotakoak, parte hartuko dute.

Parte-hartzaile bakoitzak bere ardurapean hartuko du parte ekitaldian, eta parte hartuko duen probaren eskakizunen arabera egoera fisikoa egiaztatu beharko du.

4. ARTIKULUA: IZEN EMATEAK

Ekitaldian parte hartzeko, aldezturik izena ematea gomendatzen du antolakuntzak. Ekitaldi ez lehiakorretan parte hartzeko, dortsal solidario bakarra egongo da, 3 euroko prezioan. Bildutako diruaren % 100 Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak Bidasoaldean duen ordezkariak jasoko du.

Ekitaldiaren egun berean, idazkaritza-gunean, horretarako prestatutako stand batean, lasterketaren kamiseta ofiziala (5 €) eta Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkartearen materiala erosi ahal izango dira.



Izena emateko epea apirilaren 22an irekiko da www.kirolprobak.com web gunean eta ekainaren 18an, 20h00etan, itxiko da.

Parte hartzaile askorako baterako izen-emateak bideratzeko, antolatzaileekin inigo@atletismobat.com posta elektronikoaren bidez harremanetan jarri mesedez.

Era berean, Bidasoa Atletiko Taldeak Leandro Agirretxe plazako lehenengo zenbakian bigarren solairuko 8ren bulegoan duen egoitzan, izena aurrez aurre eman ahal izango da, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etarako ordutegian.

Azkenik, probaren egunean bertan, ekitaldi bakoitza hasi baino 15 minutu lehenago arte, izen-emateak onartuko dira.

Izaera lehiakorrek lasterketen kasuan, izena ematea derrigorrezkoa izango da honako prezio hauekin:

- Errelebo Lasterketa 7 € partaide bakoitzeko (28 € talde bakoitzeko).
- Milia Egokitua 3 € kirolari bakoitzeko
- Haurrentzako Duatloia 3 € parte-hartzaile bakoitzeko

Izaera lehiakorrek lasterketetan, dortsalaz gain, izen emateak honako hauek izango ditu barne:

- Ekitaldiaren kamiseta opari gisa
- Istripu-asegurua
- Opari bat
- Jan-edanak helmugan
- Sailkapen ofiziala
- Lekuko-txip bat errelebo lasterketan parte hartzen duten talde bakoitzeko.
- Kontsigna-zerbitzua
- Dutxa eta aldagela zerbitzua

Errelebo lasterketan 50 talde parte hartuko dute gehienez. Duatloiari dagokionez, muga orokorra 200 parte-hartzailekoa izango da. Beherago, duatloiaren artikulua espezifikoa, kategoriaren arabera mugak zehazten dira. Gainerako ekitaldietan ez da parte hartzaileen kopuruan mugarik egongo.

4x1 miliako lasterketarako, taldeko 4 kideak inskribatu beharko dira, errelebo bakoitzaren txanda adierazita: 1goa, 2ena, 3ena edo eta 4ena. Edozein aldaketa inigo@atletismobat.com posta elektronikora mezu bat bidaliz egin beharko da. Ekitaldiaren egunean taldeen osakeran edo eta parte-hartzaileen txandetan ez dira aldaketarik onartuko, azken orduko gorabehera justifikaturik ez badago.

5. ARTIKULUA: DORTSALAK ETA LEKUKO-TXIPAK JASOTZEKO MODUA

Dortsalak eta Lekuko-Txipak Zabaltza Enparantzan kokatuko irteera gunean bertan jaso ahal izango dira. ([Planoa ikusi](#)).

EKAINAREN 19EAN, IGANDEAN, 8:45-etatik aurrera.

Dortsala eta lekuko-txipa jasotzeko orduan, izena ematerakoan baliatuko posta elektronikoan jasotako egiaztagiria aurkeztu beharko da nahitaez.

6. ARTIKULUA: 4x1 MILIA ERRELEBO LASTERKETA

Taldeek 4 kide izan beharko dituzte eta bakoitzak milia bat korri egin beharko du (1609,34 m.). Lehen ordezkia irteera-arkutik aterako da lekuko bat eskuan duela. Lekuko horrek taldearen denbora partzialak eta denbora osoa markatuko dituen txipa bertan itsatsita izango du. Bigarren ordezkia bere kidearen zain egongo da antolakuntzak mugatutako lekukoaren aldaketa-eremuan (helmuga baino 30 metro lehenago). Lekukoa eremu horretan entregatu beharko da, hurrenez hurren, bigarren, hirugarren eta laugarren ordezkioentzat.

Errelebo-lasterketa hasi baino 10 minutu lehenago, [planoan adierazitako](#) dei-kameraren gunera joango dira parte-hartzaileak. Handik, antolatzaileek irteera-gunera modu ordenatuan eramango dituzte parte-hartzailea guztiak.

Lasterketa Kolon Pasalekuan kokatutako milia bateko zirkuitu batean jokatu da. ([Planoa ikusi](#)). Esfertzua ondo erregulatu ahal izateko, zirkuituan zehar erreferentziak egongo dira, hurrenez hurren, 500 metro eta gero, 1.000 metro eta gero eta helmugarako 300 metro, 200 metro eta 100 metro falta direnean.

Hiru sailkapen ezberdin egingo dira: gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa. Nahikoa izango da talde batean sexu desberdineko bi parte-hartzaile egotea talde misto bat osatzeko. Lehen korrikalariaren irteera-seinaletik azken errelebo-hartzailea helmugara iritsi arte igarotako denbora osoaren arabera egingo da sailkapena. Partehartzaile guztiei jan-edanak eskainiko zaizkie parte hartzea amaitu ondoren.

7. ARTIKULUA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEENTZAKO 4X1 MILIA ERRELEBO LASTERKETA

Errelebo-lasterketan parte hartzen duten gainerako taldeen baldintza berberekin, **Bigarren hezkuntzako ikastetxeentzako 4x1 Milia errelebo lasterketaren** bigarren edizioa antolatuko da aldi berean. DBHko 1. eta 4. maila bitarteko ikasleek osatutako taldeek parte hartu ahal izango dute.

Hiru sailkapen ezberdin egingo dira ikastetxeentzako ere: gizonezkoena, emakumezkoena eta mistoa

Ikastetxeetako taldeek, talde guztientzako 4x1 miliako lasterketarako aurreikusitako sariak ere eskuratu ahal izango dituzte.

8. ARTIKULUA: HANDBIKE ETA GURPILDUN AULKIENTZAKO MILIA BATEKO LASTERKETA

Irteera bakarra emango da milia bateko luzera (1609,34 m) izango duen zirkuituari buelta bat emango dioten bi modalitateetarako.

Aldi berean, modalitate bakoitzeko (handbikeak eta gurpildun aulkiak), bi sailkapen egongo dira: gizonezkoena eta emakumezkoena.

9. ARTIKULUA: JUANMA GARATE TXIKI DUATLOIA

11h30etatik aurrera lau duatloi lasterketa antolatuko dira. Lau lasterketa hauek **Juanma Garate Txiki Duatloiren lehengo edizioa** osatuko dute. Bertan maila desberdinetako kirolariak parte hartuko ahal izango dute. Hain zuzen ere benjaminak, 2012 eta 2013 jaiotakoak, alebinak, 2010 eta 2011 jaiotakoak, eta infantilak, 2008 eta 2009 jaiotakoak. Benjaminen lasterketa bi saiotan banatuko da. Honako hauek izango dira duatloi bakoitzaren ezaugarriak:

Maila	Dei Kamera	Irteera	Korrika	Bizikletaz	Korrika	Gehieneko Kopurua
Benjaminak	11h15	11h30	300 m.	1 Milia	300 m.	33
Benjaminak	11h30	11h45	300 m.	1 Milia	300 m.	33
Alebinak	11h45	12h00	500 m.	2 Milia	500 m.	66
Infantilak	12h15	12h30	Milia ½	3 Milia	Milia ½	66

Box-gunera sartzeko kontrola lasterketa bakoitza hasi baino 15 minutu lehenago egingo da. Horretarako, parte-hartzaileek dei kameran dagokien ordutegian agertu beharko dira, eta handik, antolakuntzako kideek lagunduta, boxen gunera joango dira bizikleta eta proban behar duten material guztia eramanda. **Kaskoa nahitaez erabili beharko dute kirolariak bizikleta-atalean.** Benjamin mailako parte-hartzaileak box-gunean heldu-arduradun batekin eta bakar batekin sartu ahal izango dira, eta trantsizioetan eta trantsizioetan soilik hauen laguntza jaso ahal izango dute.

Ibilbideak maila bakoitzerako espezifikoak izango dira. Kontrametan, 30 metrotako trantsizio gune bat eratuko da. Era berean, erdiko erreian boxen gunea kokatuko da, non parte-hartzaileek bizikleta eta lasterketarako behar-beharrezkoa den materiala utziko dute.

Ibilbide bakoitzaren xehetasunak esteka honetan ikus daitezke. ([Planoa ikusi](#)). Parte-hartzaileei eta horien ardura duten helduei zirkuituak aztertzea gomendatzen zaie hauek zehatz-mehatz ezagutzeko eta akatsik ez egiteko. Parte-hartzaileen ardura da zirkuitua ezagutzeko, hala ere parte-hartzaileak bideratzeko epaileak eta antolakuntzako kideak egongo dira.

Informazio moduan maila bakoitzeko banakako sailkapenak egingo dira, baina lasterketak izaera ludiko nabarmena izango du eta ez da sari indibidualik eskainiko. Hori bai, partehartzaile guztiei hornidura oso bat jan edanekin eskainiko zaie bere parte hartzea amaitzen dutenean.

10. ARTIKULUA: DESKALIFIKATUA IZATEKO ARRAZOIAK

Lasterketa lehiakorretan, bai irteeran bai helmugan, denbora jasotzeko oinazpikoak kokatuko dira. Lasterkari guztiek bi oinazpiko hauetatik nahitaez pasa beharko dute. Lasterkariak honako kasuetan automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa burutzen ez badute.
- Dortsaleko publizitatean aldaketak eragiten badituzte edo hura ezkutatzen badute.
- Edizio honetako dortsala jantzita eramaten ez badute.
- Dorsalik edo, dorsalik edo lekuko-txipik gabe erreleboetako lasterketan, helmugaratzen badira.
- Epaileen edo antolatzaileen jarraibideei kasurik egiten ez badiete.
- Gogorazten da, erabat debekatuta dagoela zirkuitu barruan antolatzaileenak ez diren ibilgailu motordunekin edo bizikletekin sartzea.

11. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak, indarrean dagoen legeriaren arabera, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izango du. Era berean, ofizialki lasterketa lehiakorretan inskribatutako parte-hartzaile guztiak, istripu-aseguru poliza batez estalita egongo dira. Poliza horrek proba garatzearen ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, eta inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara baten, zuhurtziagabekeriaren, zabarkeriaren, legeak eta erregelamenduaren artikulua ez betetzearen ondorio gisa gertatutakoak. Lasterketa egiten den lekura eta bertatik egindako joan-etorrietan gertatzen direnak ere ez dira estalita egongo.

12. ARTIKULUA: SOROSPEN MEDIKOA

Sorospen medikoa egongo da ibilbide osoan zehar. Helmugan ere sorospen medikoa egongo da.

Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa bat egitea gomendatzen die lasterkariei; era berean, parte-hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirola egiteak dakarren arriskua.

13. ARTIKULUA: SARIAK

1go gizonezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra + Oparia
1go emakumezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra + Oparia
1go talde mistoarentzako (4x1 milia)	Garaikurra + Oparia
2en gizonezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra
2en emakumezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra
2en talde mistoarentzako (4x1 milia)	Garaikurra
3en gizonezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra
3en emakumezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra
3en talde mistoarentzako (4x1 milia)	Garaikurra
1go DBHko Ikastetxeetako gizonezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra
1go DBHko Ikastetxeetako emakumezkoen taldearentzako (4x1 milia)	Garaikurra
1go DBHko Ikastetxeetako talde mistoarentzako (4x1 milia)	Garaikurra
1go sailkatua gizonezkoen Handbiketan	Garaikurra + Oparia
1go sailkatua emakumezkoen Handbiketan	Garaikurra + Oparia
1go sailkatua gizonezkoen gorpil-aulkietan	Garaikurra + Oparia
1go sailkatu emakumezkoen gorpil-aulkietan	Garaikurra + Oparia

14. ARTIKULUA: DUTXATZEKO, ARROPA JASOTZEKO ETA APARKATZEKO ZERBITZUAK

Dutxak eta aldagelak irteera eta helmuga gunearen inguruan aurkitzen den Artaleku Kiroldegikoak izango dira. Parte-hartzaileak 13:30ak arte sartu ahal izango dira Kiroldegian. Dutxak 14:00etan itxiko dira.

Arropa jasotzeko eta kontsignatzeko zerbitzua egongo da irteeratik 50 metrora, Zabaltza Enparantzan. ([Planoa ikusi](#)).



Autoz bertaratzen direnei parking hauetakoren bat erabiltzea gomendatzen diegu: Kolon Ibilbidea, San Juan Plaza, Pio XII Plaza edo Ficoba (doakoa). ([Planoa ikusi](#)).

15. ARTIKULUA: IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duten momentutik aurrera araudi hau onartzen dute, eta Bidasoa Atletiko Taldeari eta Irungo Txirrindulari Elkarteari baimena ematen diote, soil-soilik kirol, promozio edo merkataritza xedearekin, berak edo bitarteko beste entitateek partaideen datu pertsonalen nahiz proba barreneko euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko (argazki, bideo eta abarren bidez).

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak ezartzen duenaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horiek eskuratzeko, betiere bertako edukia partzialki edo guztiz zuzentzeko edo baliogabetzeko xedez. Eskubide hori gauzatzeko, idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialean. (Ramon Iribarren kalea, 4 – behe solairuko atzealdea, 20304 Irún)

Aurreikusita ez dagoen ororako World Athletic-eko araudia edo, duatloiaren kasuan, indarrean dagoen Espainiako Triatloi Federazioko araudia kontutan hartuko dira.

16. ARTIKULUA: INFORMAZIO GRAFIKOA

Esteka honetan ibilbideari eta erantsitako guneei buruzko eguneratutako informazio zehatza eskuragarri dago:

[Planoa ikusi](#)